



Truman Capoteren ostekoak

5

■ Azkenaldian, genero gehiago sortu dira han eta hemen. Kazetaritza edo literaturatik hurbilago dauden ezin jakin daiteke askotan. Kazetaritza eta literatura hutsetik kanpo dauden generoak dira horiek. Garaitik garaira aldatu egiten dira generoak. Aingeru Epaltzak iritzia aipatu du. «Nahasketak sortzen dira. Batetik kazetaritza badelako genero bat albiste horretatik haratago doana: iritzia», dio. Genero horrek irauteko bokazioa duela gaineratu du gero; «Gainera, iritzi artikulu horietatik asko eta asko iritzi artikulu izatetik liburu izatera igaro dira», adierazi du adibide gisa. Eta nahasketak haratago doazela gehitu du; «Kazetaritzak ia-ia genero bat eman dio literaturari: Truman Capoterekin hasi zen kazetaritza mota hori. Gero kazetaritza berria izango dena. Nolabait ere fikzioan oinarriturik ez, baizik eta errealtatean oinarrituriko halako kasu batzuk erakusten dituen», gehitu du.

Urtzi Urrutikoetxeak beste genero mota bat aipatu du, tartean-tartean: kronika. «Kronika tartean dagoen zerbait da. Literatur ikuspuntutik fikzio kutsua galtzen du, eta askatasuna. Baina, aldiz, kazetaritzaren ikuspuntutik, akaso, kazetariak izan behar duen distantzia hori galtzen du».

Badira beste genero berri batzuk ere. Aingeru Epaltzak bidaia liburuak aipatu ditu: «Oso genero hibridoak dira berez, eta maiz lehenbizi kazetaritza dira, kazeta produktuetan ateratzen direlako, baina gero liburueta eramaten direlako. Liburuxkak, adibidez; joan den mendean, esaterako, Dumasek idatzitako liburu guztiak lehendabizi aldizkarietan atera zituzten», gehitu du.

Bestelako adibide bat jarri du Hasier Etxeberriak, eta unean unekoari egin dio aipamen. «Oso argi daukat kazetaritza lan hotz bat egiten ari garenean hor literaturak ez daukala lekurik; notizia hotz, labur eta jakin bat bada. Aski da intelgentzia minimo bat edukitzea eta hizkuntza menperatzea hori idazteko. Hor dagoen inplizitate artistikoa ez da hainbestekoa. Aldiz, erreportaia zabal eta libre batean ari bazara, beste zerbaitetan ari zara; halakoak literaturatik hurbilago daude. Beste tenore batzuk, beste bizipen batzuk erabiltzen dituzu. Are gehiago, literaturak bereak dituen tresnak, aurkikuntzak sar daitezke kazetaritza, eta erabilgarri bilakatu», dio.

Arantxa Iturbe idazleak ere hala uste du. Hala gertatzen omen zaio berari ere. «Zaku zabal da kazetaritza: zutabeetan, erreportaietan eta elkarrizketetan ere askotan baliabide literarioak erabiltzen ditugu. Betiere, zerbaiten arabera izaten da hautua», dio. Egunkarietako zutabeak aipatu ditu adibide gisa. «Gaur egun bi eratako zutabeak daude; eta ez da kasualitatea zutaberik gehienak idazleei eskatzea. Badaude zutabe politiko batzuk eta jende jakin bati emanak (oso kazetaritzakoak), eta beste batzuk gehiago dute literariotik», aipatu du. ■

batzuetan, generoen arteko haustura bera helburu bihurtuta, bitarteko moduan hartu beharrean».

Idazle-kazetari

Halabeharrez edo kasualitatez, kazetari lanetan ari diren idazleak gero eta gehiago dira. Idazle handi bilakatu diren asko eta asko kazetari izandakoak dira alde aurretik. Aingeru Epaltza ere kazetari izandakoa da, eta hala mintzatu da gaiaren inguruan: «Bada kazetaritza estilo bat literaturara pasatu dena. Literatura egiteko modua da. Historikoki ere gertatu da; egunkarietako erredakzioak idazleen labe bilakatzen dira, trebaleku, eskola. Eta hori joan den mendetik hona ari da gertatzen, eta egun, inoiz baino gehiago. Eta, hori, euskal literaturan ikusten ari gara. Nolabait ere, ofizioa ematen dio kazetaritzak idazleari: idazteaz bizitzeko aukera ematen dio», azaldu du Epaltzak. Bestalde, idaztetik bizi diren idazle gehienak ez direla liburuetatik soilik bizi gehitu du: «Prentsan agertzen diren artikulu, zutabe eta abarretan ere aritzen dira. Izan ere, ofizioz kazetariak beharia izan behar

duela. Eta idazlea zerbait bada, hori da: so egilea». Gehienetan, sailkapen guztiak zehaztugabeak izaten diren arren, narrazio egile gehienak kazetariak direla aipatu du Epaltzak. Eta poesia egileak diren gehienak, aldiz, literatura irakasleak izaten direla. «Eta hori Europa osoan gertatzen da. Gero, jautzia ematen dute gehienetan», gehitu du, eta bere kasua ere halakoa izan zela adierazi.

Joxean Agirrek, berriz, zera dio: idazle euskaldun askok komunikabideetan jarduten du. «Muga oso garbia da. Badaude kazetaritza genero batzuk, zutabeak esaterako, kazetaritza literatura ukitzeraino hurbiltzen direnak. Estatu espainiarreko idazle ezagun askok praktikatzeko genero hori: Millas, Marias, Regas, Vicent. Irudipena dut Frantzian ere hala gertatzen dela. Badaude baita literatura dosi handiak erabiliz erreportaia generoa praktikatzeko dutenak ere».

Historiaren harian

Hasier Etxeberriaren arabera, gure herriaren historiak ere izango du zer ikusirik akaso. «Asko eta asko hasi

ginen lanean gure herria *salbatzeko*; nola idazten, nola hizkuntzalaritza, nola antzerkian, nola beste edozertan. Garaiak ere halakoak ziren, noski». Hala ere, egungo garaiek hizkuntzaren inguruko diziplina artistikoak zein industrialak elkarren ondoan daudela gaineratu du. «Eta elkarren ondoan lan eginez gero, ez zaigu hain arrotza egiten batetik bestera salto egitea. Quim Monzo bat datorkit burura; kazetaritza dabil, literaturan dabil, antzerkigintza dabil». Bestalde, egungo gizarte ereduak eraginik izango duela gaineratu du Aingeru Epaltzak. Irudiaren, nahastearen, experimentazioaren aroan bizi gara, non-bait.

Kazetaritza «literaturtu»

Bi arloak gehiago elkartuko lituzkeenik ere bada gurean. Luzien Etxezaharreta, esaterako, kazetaritza *literaturtzaren* aldekoa da; espresabide propio bat erabiltzearen aldekoa. «Jakina, kazetaritza eskatzen dela informazio hotz eta ahal bezainbat

oso baten ematea. Baina edozein hizkuntzatan garrantzitsua da espresabidea. Eta uste dut kultura bakoi-tzak baduela berea. Iduri zait, kazetaritza *literaturtu* baten alde egin behar genukeela. Ez dut uste informazioaren emateko nahitaez gauza hotz bat izan behar duenik», iritzi dio. Euskal kulturaren egon den komunikazio era zaharra ez erabiltzeak bere galera ekarriko duen beldur da Etxezaharreta.

Iparraldean molde politak direla gehitu du gero Etxezaharretak: Etxepareren artikuluak, esaterako. Kazetaritza literaturtzaren aldeko apustuak badirela gaineratu du gero. Zenbait komunikabide aipatu ditu. «Frantziako hainbat egunkarietan forma *literaturtu* bat erabiltzen dute. Sentimen baten adierazteko garrantzitsua baita zerbaiten kontaktuzunean. Eta zerbait sentiaraztea, hori da literaturaren helburua. Gainera, ez dut uste kasualitatea denik idazle asko kazetari izatea». Jendea ez da bizi datu hotzekin, Etxezaharretaren ustez. «Jendeak sentitzeko moduak behar ditu».